

AIPUA: “DENBORA GALDU ALDE”

Bitoriano Gandiaga

RIEV. Revista Internacional de los Estudios Vascos.
Año 39. Tomo XXXVI. N.º 1 (1991), p. 173-177
ISSN 0212-7016
San Sebastián: Eusko Ikaskuntza

Aspalditik nenbilen Gandiagari buruz zerbait idaztekotan. Gauza bat da, ordea, desioa; eta beste bat, oso beste bat, ahalmena. Dena dela, azkenean ausartu egin naiz.

Mutikotan ezagutu nuen Bitoriano Gandiaga. Hura maisu eta ni ikasle, Arantzazun egin genuen topo. Eta begira nola izaten diren gauzak: Gandiagak oso nortasun berezia zuela segituan ohartu nintzen. Barne-kezka isladatzen zuen gizona zen ordurako. Berez estua izan, gauzak ondo egin nahi eta beste inorekin konparatuz beti galduan ateratzen zenaren uste gogaikarriaz, apika, kezka horren iturburu. Nolanahi ere, harrigarri da, benetan, zuk intuizioz eta detaile batzuri esker zenuen eritzia berak, hogeitabost urte geroago, bere liburu baten bidez konfirmatzea.

Nik dakidanez, Gandiagak lau obra argitaratu ditu: “Elorri”, “Hiru gizon bakarka”, “Uda batez Madrilan” eta orain astindu nahi genukeen “Denbora galdu alde” hau. Aurreneko hiruetan lauso artean bezala ageri diren bere nortasuren arrastoak, azkenekoan erabat nabarmen jartzen ditu. Beste ezer baino lehen, bere buruari eta bere problemei dedikaturiko liburua da. Ez ote zekioken “Psikoterapia egite aldera” edo antzekorik jarri?

Gandiagaren problema erraz uler dezakedala uste izateak ere bultzau nau “Denbora galdu alde”ren gainean hitzegitera; neu ere ez bait naiz Gandiagak difuen problema askotatik libratzen. Neuk ere bisita bat baino gehiago egin diet, nire denboran, Gandiagak aipatzen dituen sendagile klase horiei.

Duda eta zalantzak uxatu ezinik ibiltzea zer den badakit. Badakit zen den ezetz esaten ez jakitea. Badakit idatzi duzun ornan tipexik ikusi nahi ez eta ezin asmatua zer den. Obsesioen mende bizitzea zer den badakit. Badakit zer den “Trankimazin”en anparuan lo egitea. Beraz, badakit “Denbora galdu alde” zer den.

“Denbora galdu alde” EREIN argialetxeak editatu zuen 1985ean. Gandiagaren laugarrena eta azkenekoa da berau. Ehun eta hirurogei orrialde ditu 13 x 23ko neurrietan bildurik. Prosaz, errimarik gabeko poema erritmiko eta bertso poetikoez osaturik dator liburua. “Behin batean bazen gizon bat...” eginez hasten da, batera hitzaurrerik gabe. “Hiru gizon bakarka”n txakolina sinbolotzat harturik, Euskal Herriaren nahia eta ezina adierazten dituen bezala, bere buruaren gizatasunaz ditu zalantzak oraingoan.

Lanean bestetan ez dakien gizonari, lan gutxiago egiteko eta bere buruari halako perfekzioz ez eskatzeko esan diote psikiatrek. Baina moral estuegian hezia ornen. Nola ohitu denbora galtzen?, eta garraisi dagi Gandiagak.

Prosatik poesira eta hemendik bertsora aidean egiten du salto Gandiagak. Lehenengo poema saila, euskaraz, gogoak halaxe ematen diolako bakarrik idazten duela esanez haste du. Nahi lukeen leku denetara ezin ornen da iritsi eta sortzen dion egonezina handia da. Ez ornen da lagunartekoa. Dударik gabe, bakardadearen fruitua da liburu hau.

Gauza berei jiraka ari da beti Gandiaga. Jaramonik egin nahi ez liekeen kontuak beti buruan. Bere buruarekin bakar-solasean ari da Bitoriano. Beretzat idazten du. Bipil bezain sinzero jokatzeko bere buruarekin.

Apaizgintzak ere, saltzeko ez daukan arren, eman dizkio buruhauste franko: konfesioak, sermoiak... Ohartzen da kokolokeria asko darabilena buruan, gainditu nahi ditu. Nola, ordea? Umetako kontuak gogoratzen dizkigu gero: "Hamar urterekin Sabina gustatzen zitzaien". Baina fraide joatea erabakitzen du.

Harritu egiten da edozein arazo latzek eraso arren lo lasai hartzen duen jendea bada-goela ohartzeko. "Ni ez nauzu horrelako dohainen jabe" esando du.

"Gandiagak Bitorianori" izeneko sailarekin ekiten dio bertsoan. Zortziko nagusian botatzen ditu. Fede eta esperantzarekin batera, fatalitatea era aipatzen da. Etengabe dabilta kontrako indarrak borrokan Gandiagarengan. Zortziko Zaharrea ere saiatu da. "Hegoatik Iparrera" saila doinu horretan emana dago. Huskeriak benetan hartzen dituelako, bere buruari erritan ari zaio.

Momentu batez egiten du ihes gauza pertsonaletatik beste batzuetara, "Nik" izeneko sailean adibidez, baina orduan euskararen ezinarekin hasten zaigu. Beti, ezin! "ORAIN" izeneakoan, aldiz, esaldi borobilak biltzen ditu: "Alferra izan naizen kezkarik ez dut, baina bai alferrik aritu izan naizen damurik" dio.

Sinbolo bikainik ere badarabil. "NAHIZ ETA" izenekoan esate baterako:

"baina pospoluak behingo argia damake
bakarrik eta omenean.
Gero ikatz eta ezertarako ez den zotz dateke,
besterik ez."

Edozein gauza du oztipo: "Erderaz aritu naiz irakurtzen eta itxaron iezadazue piska bat buru hau euskeratzen". Lehen esan bezala, fraide izatea ez dauka saltzeko, baina: "ondo zorionean naiz fraide, nahii osoki zorioneko ez naizen" esango dizu. Badu zorion-gogoa eta irrika. Hala adierazten du lau lerrotako koplak batzuetan. Baditu Bederatzi Puntuako egiturekin egindako bertsoak ere. Hala ere zortzi puntuak dira.

"Gizona bada duena galtzeko beldur den gizaki ere" Gandiagarentzat. Gorroto dio gizarte kontsumista honi. Izateari baino edukitzeari garrantzi gehiago ematen dion gizarte ez zaio gustatzen. Are gutxiago, burokrazia eta herrien zapalkuntza. Hala dio "Bitorianok Gandiagari" izeneko sailean: "Utopiaren erresumatik behar dut hona ekarri".

Munduko, Hirugarren Munduko, problemek ere kezkatzen dute: "Uruguay, El Salvador, Guatemala... hortxe aipatzen ditu, nik ez dakit zergatik koplak errimatu eta trikiti doinu alaietan. Berriro ere, kontrastea nabarmen. Behartsuen zeruko izar beltzak ornen URSS eta USA.

Ironia ere erruz darabil Gandiagak. "Denek maite gaituzte"—esango du—"Madrirek maite gaitu, eta Parisek". Maitasunari ere dedikatzen dio ipuintxo bat. Psikiatreek emandako parte eta egindako diagnostikoak ere liburuan ezarririk datoz. Euskal literatura dela eta, hor ere, nolako ironia: "jenero honek ez du izenik".

Honela dio beste bertso batzuelan (nere sentimenduta nahi det deklaratu doinuan):

Asko lotsatu bait nau
sarritan egiak
isilpean estali
ohi ditut erdiak.

Egia ote da hori? Esan dituen denak esan eta, hori egia? Ez dut uste.

Liburu osoa da garrasi ozen. Fedea, esperantza eta pozaldiak ageri dira, baina bizitzaren ikuspegi trajikotik ezin du ihes egin Gandiagak.

Hain prosa ederrik ez dut aspaldian irakurri. Nola dominatzen duen euskara; eta nola, idazterakoan erabili behar diren errekurto denak! Hitz bat ez sobra; ele bat ez alferrik! Dena zehatz eta juxtu. Ez purista eta ez mordoilo. Puntu-puntu dena.

Zeinen poema erritmiko eta zeinen sarkorrak! Zeinen berlso bikain eta sakonak! Benetan ederra, zinez zoragarria, egiaz bakarra Gandiagaren obra. Zeharo identifikaturik senti erazi nau.

*Rufino Iraola Garmendia
Zaldibian, 1990 azaroaren 22an*